ONDARROAKO BARRI-PAPERA

UDAL BARRIAK

III. Aroa • **2012ko apirila** • 3. zenbakia • Ondarroako Udala • ISBN: BI-2572-2011

Argazkian, Guzur Etxeari buruzko batzarra udaletxean, herriko dantzari eta antzerkilari batzuekin.

Guzur-Etxi sorkuntza artistikorako gune bihurtuko da

>Guzur-Etxea arte sorkuntzarako erabilera ugariko espazio bihurtuko da.

>>Herriko arte sortzaileak proiektua euren beharren arabera moldatzen ari dira.

Iazko udazkenean Udalak proposamen bat jaso zuen herriko zenbait artistaren eskutik: Guzur-Etxea arte sorkuntzarako erabilera ugariko gunea bihurtzea. Udalak begi onez hartu zuen ekimena, eta deialdi zabal bat egin zuen, herriko artistak bildu eta proposamenaren oihartzuna baloratzeko. Proiektua interesgarria eta beharrezkoa zela ikusirik, espazio horren antolaketarako eta kudeaketarako lan-taldea sortu zen, 40 artista inguruk osatua.

Udalak, bere aldetik, 30.000 eurotako diru partida aurrikusi eta gorde zuen 2012ko aurrekontuetan, eraikinari egin beharreko egokitzapenei aurre egiteko. Era berean, eta Guzur-Etxearen proiektua norbanakoetan –eta ez taldeetan- oinarrituko dela kontutan hartuta, negoziazio prozesu bat jarri zuen martxan, 2. eta 3. solairuen ohiko talde erabiltzaileak birkokatzeko (Xake Taldea eta Kresalaren Musika Banda).

Bost solairu, bost espazio

Guzur-Etxeak bost solairu ditu, eta udalaren helburu nagusia solairu hauen erabilpena ahalik eta gehien optimizatzea da, herriko artistei gune duin eta egokiak eskainiz, euren egitasmo artistikoak garatzeko: arte eszenikoentzako lagapen-guneak, arte plastikorako tailerrak, eskultura, argazkigintza, filmaziorako platoa...

Lehenengo pisua, formatu txikiko ikuskizunetarako moldatuko da, behar izanen arabera gaur egungo jarduerak (hitzaldiak, batzarrak…) Kofradia Zaharrera bideratuz. Bigarren solairua arte eszenikoetarako erabiliko da. Hirugarrena, arte plastikoetarako. Laugarrenean batzar gela eta erabilera ugariko gunea egongo da. Azken pisuan, argazkigintza eta ikus-entzunezko jardueren estudioa ipiniko da.

Prozesuaren diseinua (azpiegitura orokorrak) eta jarraipena erabiltzaileen lan-taldean garatuko da, eta solairu bakoitzak bi arduradun izendatu ditu kudeaketa bideratu eta gainontzekoekin koordinazioa bermatzeko. Solairu bakoitzeko erabiltzaileek zehaztuko dituzte euren jarduera ahalik eta hoberen egiteko solairu horretan beharrezkoak diren bitarteko eta azpiegiturak. Eraikinean egingo diren aldaketa eta konponketa asko ere pertsona horiek egingo dituzte, auzolanean, premiazkoa denean udaleko langileen laguntzarekin.

Guzur-Etxeko proiektua martxan dago eta lehen urratsak ere eman ditu: argazki-erreportaia eta egur-taila ikastaroak. Ongi etorri Ondarroako sorkuntza gunera. Zure zain gaude.

GUZUR-ETXEKO SOLAIRUEN BANAKETA: 0.n (entreplantan) Dutxak (gaur egun komunak daude hor). **1. pisuan:** Formato txikiko ikuskizunen aretoa. **2. pisuan:** Arte eszenikoen aretoa. **3. pisuan:** Arte plastikoen aretoa. **4. pisuan:** Batzar Gela eta Zerbitzugunea. **5. pisuan:** Argazkigintza tailerra eta ikus-entzunezko jardueren estudioa.

2012 AURREKONTUAK

>>> EKONOMIA

Kontuak, garbi!

> Ondarroako Udalak 2012ko aurrekontuak onartu ditu.

>>Auzo batzarretan atera diren premiei erantzungo die Udalak

ZERBITZU NAGUSIAK

KIROLDEGIA	812.000 €
ARTIBAI EGOITZA	1.579.815 €
LIBURUTEGIA	133.000 €
MUSIKA ESKOLA	422.000 €
LEA-ARTIBAIKO AMANKOMUNAZGOA*	800.000 €

Zerbitzu bakoitzaren pertsonalaren gastuak jasota daude.

* Lea-Artibaiko Amankomunazgoak bi zerbitzu eskaintzen dizkio Ondarroako Udalari: Zabor bilketa eta gizarte zerbitzuak.

BATZORDEAK

EUSKERA	168.000 €
KULTURA + JAIAK	314.000 €
KIROLA	124.000 €
ONGIZATEA	138.000 €
ANIZTASUNA	43.000 €
BERDINTASUNA	134.000 €
INGURUMENA	146.000 €
HIRIGINTZA*	1.203.000 €
HEZKUNTZA	269.000 €

Arlo bakoitzeko pertsonalaren gastuak jasota daude.

* Auzo batzarretako egitasmoen aurrekontua hirigintzako aurrekontuan dago jasota.

Ondarroako Udalak 2012rako aurrekontuak onartu zituen iazko abenduan egindako osoko bilkuran. Hortaz, 2012an 10,2 milioi euro edukiko ditu udalak beharrerako, 2011an baino milioi bat gutxiago. Bizi dugun egoera ekonomiko larria dela eta, aurtengo ekitaldiari aurre egiteko zuhurtzia handia beharko da. Are geihago, udalak berak daukan egoera ekonomikoa ere kezkagarria delako. 2010eko ekitaldiaren kitapenak erakutsi zuen bezala, Ondarroako Udalak 1,5 milioko defizitarekin hasi zuen 2011 urtea. Defizit hori orekatzeko baloreen kartera (Telesforo Urrestik utzitako ondarea) erabili izan da aurreko legealdietan, baloreen merkatuak izan ditzakeen gorabeherei erreparatu gabe. Horrela 2008an baloreen merkatuak izandako beherakada handiak oso egoera larrian utzi du udaleko ekonomia.

Aurtengo aurrekontuak zehazterakoan, batez ere eremu bi hartu ditu udalak kontutan: Arloz arlo eratuta dauden batzordeak eta urrian hasi ziren auzo batzarrak. Honela banatuko da aurrekontua:



***Udalkutxa, Foru Aldundiak udalei bideratzen dien diru laguntza da.**
****Hortik, Ibaiondo kaleko aparkalekuen kontzesioak (1,7 M).**
Datuak milioi eurotan daude



Datuak milioi eurotan daude

943.000 euroko diru partida laga du udalak auzo batzarretan onartutako premia nagusiei erantzuteko

2011ko urrian hamar auzo edo kale batzar egin ziren, kale bakoitzean dauden premiak bideratzeko. Horren ostean, auzo bilgunean kale eta auzoetako ordezkariak batu ziren, eta herri osoan ateratako premien artean aurtengo aurrekontuetan zeintzuk jaso erabaki zuten. Ondorioz, behar horietarako 943.000€ko diru partida laga da. Honela banatzen da diru kopuru hori:

- Kale egokitzapenak: 517.000 €
- Kale garbiketarako makina berria: 91.000 €
- Haur jolasak + bizikleta aparkalekuak: 65.000 €
- Kale argiterian kontsumoa aurrezteko sistema: 30.000 €
- HAPO-PGOU: 270.000 € *

*Auzo batzarretan atera diren ekarpen asko ezin dira bete gaur egun indarrean dagoen herriko Plan Orokorrarekin. Plan hori berritzeko, 270.000 €tako diru partida aurreikusi du udalak, honek hasiera batean eskatzen dituen erredakzio eta azterketa batzuetarako.

EAJk salaketa ipini du aurtengo aurrekontuen kontra

Aurtengo aurrekontuetan Ibaiondo kaleko aparkalekuen kontzesioetatik eratorritako diru sarrera bat egongo da. Diru sarrera honek aurrekontuetan izango duen erabilera dela eta, EAJk bere desadostasuna erakutsi du eta aurrekontuak epaitegietan inpugnatzeko erabakia hartu du. Alderdi horren esanetan, aparkaleku hori «udal lurzorua da hirigintza planeamenduaren ondorioz lortutakoa, eta beraz Udal Lurzoru Ondarea izenarekin ezagutzen da. Legez, ondare hau administratzetik eratortzen diren diru sarrerak ondare hori handitzeko eta zaintzeko erabili behar dira.» (EAJren iritzia 6. orrialdean irakur daiteke osorik).

Udaleko gobernu taldeak, bestelako iritzia agertu du. «Guztiz zilegia da erabilpen honen inguruan EAJ-PNVk beste iritzi bat edukitzea eta baita bere ideologiarekin bat datorren diruaren beste erabilera eredu bat eskatzea ere, baina Ondarroako udal gobernuak udaleko zerbitzu ekonomiko eta juridikoetan oinarritutako aurrekontua aurkeztu zuen». Gobernu taldearen esanetan, EAJ-PNVk aurrekontu horri aurkeztutako alegazioaren harira, «udal gobernuak berriro aztertu zituen aurrekontuak, udaleko zein udalez kanpoko zerbitzu juridiko-ekonomiko batzuekin, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari (Tribunal Vasco de Cuentas Publicas) ere bere iritzia eskatu zion.» EAJ-PNVk bere alegazioan aipaturiko jurisprudentzia kasuak Ondarroako Udaleko aurrekontuekin «parekotasunik ez dutela» iritzita, kontsultatutako zerbitzuek aurrekontuen kontrako inolako adierazpen negatiborik ez zuten egin. Horregatik, «Ondarroako Udalak ez dauka zertan aurrekontu horiek zalantzan jarri». Udalak oposizioaren iritzia kontuan hartu duela nabarmendu du, «ez da egia udal gobernuak EAJ-PNVren eskariei jaramonik egin ez dienik, egia ez den modura Udal Gobernuak teknikarien irizpideen kontra erabakirik hartu duenik.»

Hala ere, EAJ-PNVk bere alegazioarekin aurrera jarraitu eta aurrekontuak epaitegietan inpugnatzea erabaki du, «herritarrei beste erremediorik izan ez duela esanez.» Baina aurrekontu hauek batzordeetan landu direla aldarrikatu du udal gobernuak, «batzordeetan eta auzo batzarretan ehunka herritarrek hartu dute parte aurrekontuen lanketan, EAJ-PNVk eduki du aukera batzorde horietan lan egin eta ekarpenak egiteko. Udal Ogasun Batzordeko kidea ere bada EAJ-PNV, baina ekarpen bat bera ere ez du egin.»

Amaitzeko, udal gobernuak batzordeetan parte hartzeko eskatu dio oposizioari «inpugnazioen aurrean, badago beste erremediorik: hilean behin plenoetara agertzeaz batera, egunerokotasunean lana egitea».

HIRIGINTZA • **KALEAK ETA AUZOAK**

KALE IBILALDIAK, kaleetako arazoetaz jabetzeko

> Ibilaldien bidez, udaleko ordezkari eta teknikariek auzoetako arazoak ezagutuko dituzte auzotarren eskutik.

>> Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu ibilaldi hauetan parte hartzera.

Udalak herritarren parte hartzerako zabaldu nahi duen beste ekimen bat dira kale ibilaldiak. Azken batean, kalez kale egingo diren "pasiarak" izango dira, eta bertan udal ordezkariek eta udal teknikariek bizilagunekin batera kale bakoitzean egon daitezkeen arazoak bertatik bertara aztertuko dituzte.

Ekimen honekin, auzoetako arazoez hobeto jabetzea bilatzen du udalak, eremu bakoitza zuzenean aztertzeak ematen duen hurbiltasuna aprobetxatuta.

Horrela, auzoen eta kaleen parte hartzea bultzatzeko foroak urte guztian zabalduko dira: udazkenean auzo batzarrekin hasitako ekimenak jarraipena eduki zuen azaroko auzoetako ordezkarien bilgunearekin. Abenduko herri bilguneek iazko prozesuari amaiera eman zioten. Orain, kale ibilaldiekin, aurtengo parte hartze prozesua martxan ipiniko da, gero auzo batzar eta bilguneetan jarraipena edukiko duena.

Udalak herritar guztiak animatu nahi ditu ibilaldi hauetan parte hartzera.

Kale ibilaldietarako zitak

KALEA/AUZOA	EGUNA eta ORDUA	BATZEKO PUNTUA
Itsasaurre/ Egidazu kaia/ Antiguako Ama/ Zubiaurre	Maiatzak **3, eguena,** 19:00	Augustin Zubikarai plazan
San Inazio/ Harategi/ Artibai/ Ikastola	Maiatzak **7, astelehena**, 19:00	Artibai egoitza aurrean
Errenteria	Maiatzak **8, martitzena**, 18:30	Zubiaren parean
Gorozika	Maiatzak **8, martitzena**, 19:30	Elizako atarian
San Juan Txurru/ Madalena/ Sabino Arana/Txori Erreka	Maiatzak **9, eguaztena**, 19:00	Latxanbre enparantzan
Kantoipe/ Kafe Atze/ Erribera/ Nasa	Maiatzak **9, eguaztena**, 19:00	Kafe atzean
Iparragirre/ Pixape/ Iparkale/ Txomin Agirre	Maiatzak **10, eguena**, 19:00	Elixopean
Kalandi/ Kamiñalde	Maiatzak **14, astelehena**, 19:00	Elixopean
Kamiñazpi/ Iturribarri/ Ibaiondo	Maiatzak **15, martitzena**, 19:00	Orubixe taberna aurrean, Iturribarrin
Artabide	Maiatzak **16, eguaztena**, 19:00	Terraza gorrian

>>> Laban ez egitekoa botata dago Kaleandin.

Euria egiten duenean laban ez egiteko produktua bota du Udalak Kaleandin. Alde Zaharreko auzo batzarrean egin zen eskarietako bat izan zen hau.

ELKARRIZKETA

>ARANTZA BURGOA eta IÑAKI BEITIA,
Kirol zinegotzia eta kirol batzordeko kidea

«Taldeetan jendea borondatez dabil beharrean; euren lana erraztu egin behar da»

Udalean sartu zirenean, kirol lan taldekoek hiru ardura nagusiri aurre egin behar izan zieten: zortzi urtean batu barik zegoen kirol batzordea martxan ipini, aurreko udal kudeaketa batzordeak deitu gabe laga zuen 2011ko dirulaguntza deialdia egin eta dirulaguntzen araudia aldatzen hasi.

Zelan egin duzue dirulaguntzen araudiaren aldaketa?

Kirol batzordea udal korporazio berriak martxan ipini zuen lehenengotariko batzordea izan zen, eta lehenengotik hasi ginen 2011ko dirulaguntzen deialdia martxan ipintzen (aurreko udal taldeak deialdia egiteko zeukan oraindik!), eta araudi berria prestatzen ere hasi ginen.

Araudia birmoldatzeko lantalde bat osatu da, kirol eta kultur taldeetako boluntarioekin. Lantalde honek araudi berriaren zirriborroa egin du, eta kirol eta kultur batzordeetan aurkeztu ostean onartu egin da.

Zeintzuk aldaketa proposatzen dituzue araudian?

Hasteko, gastuak justifikatzeko irizpideak arindu ditugu. Horretarako, eranskinak estandarizatuko ditugu. Adibidez, erregaiaren tiketak aurkeztu ordez, kilometrajea egiaztatzea nahikoa izango da, horretarako prestatutako txantiloi baten bidez.

Herriko talde gehienak daude gaur egungo sistemarekin nekatuta. Taldeetan dabiltzan herritarrak borondatez ibiltzen dira gauzak antolatzen, eta nahikoa lan edukitzen dute urteroko egitaraua ahalik eta ondoen aurrera ateratzen. Borondatez dabilen jendea da, eta euren lana erraztu behar da. Esate baterako, taldeei eskatzen dutenaren %85a aurreratuko zaie dirulaguntza onartu eta hilabetera. Horrela, taldeek ez dute ibili beharko urte amaieran kobratuko duten dirua aurrezten.

Honez gain irizpide taula eta puntuazio sistema bat egin ditugu, ekintza bakoitzaren eragina baloratzeko. Era honetara, puntu gehien lortzen dituzten ekintzek dirulaguntza handiagoak jasoko dituzte. Horretarako jarraipen eta ebaluazio batzorde bat sortuko da, teknikari, alderdi politiko eta batzordeetako ordezkariekin.

Bukatzeko lortutako puntuazioa eta jaso beharreko dirulaguntza kopurua lotzen dituen formula matematiko bat aplikatuko dugu puntu gehien lortzen dituzten ekintzak hobesteko edo bultzatzeko, orain arte aplikatu izan den hiruko erregela soilaren ordez.

Zer beste lan egiten dabil Kirol Batzordea?

Kiroldegiak ez du araudirik eduki orain arte, eta hori idazten ari gara, langileekin batera. Kirol agenda ere martxan ipini dugu, interneten, eskoletan eta polikiroldegian. 6 hilean behin kirol buletina ere aterako dugu, batzordeko kideen laguntzagaz.

Kanpaina bat ere egin nahi dugu, herriko kirolari desberdinak ezagutzera emateko, bai taldean dabiltzanak eta baita bakarka dabiltzanak ere. Kirolariak euren artean ezagutzea nahi dugu, eta herrian dagoen kirol mugimendua bistaratzea ere bai. Bestetik, ikastetxeekin multikirola bultzatu nahi dugu, ekintza desberdinak antolatuta. Asmoa da ikasleek kirol desberdinak ezagutzea eta euren gustukoa aukeratzea.

BARRIMOTZAK

OSASUNA

Ondarrutarrek Durango eta Galdakaora joaten jarraitu ahalko dute

Ondarroako Udalak akordioa lortu du Osakidetzarekin Gernikako bereizmen handiko zentroaren inguruan

Ondarroako herritarrek Durango eta Galdakaoko ospitaletara joaten jarraitu ahalko dute, udaleko Ongizate Batzordeak eta Osakidetzak lortutako akordioaren ondoren. Horretaz gain, nahi duena Gernikan eraikitzen ari diren Bereizmen Handiko Zentrora ere joan ahalko da. Eskari hau egiteko argudio nagusi bat egon da, batez ere: Ondarroatik Gernikara komunikazioak oso txarrak direla. Prozesu honetan, Ondarroako anbulatorioak ere aldeko jarrera eduki du.

Osakidetza Gernikan eraikitzen ari den Bereizmen Handiko Zentroak Durango edota Galdakaoko zentroak ordezkatuko ditu aurrerantzean. Ondarroako herritarrek eta Lea Artibaikoek Galdakaon zein Durangon jasotzen dituzten zerbitzuetako asko Gernikako zentro berriak hartuko ditu bere gain. Hala ere, ondarroarrek hiru zentroetako edozeinetara joaten jarraitu ahalko dute.

Galdakaoko zuzendaritzarekin izandako bileretan bi gai eztabaidatu dira batez ere: Bata, Durango eta Galdakaora joaten jarraitzea, eta Gernikako Bereizmen Handiko Zentrora joateko aukera gehitzea; bestea, Mendarora joateko aukera aztertzen hastea. Azken aukera honi dagokionez, momentuz erabaki finkorik ez dagoen arren, hartuemanek aurrera jarraitzen dute, Mendarora joateko aukera lortu ahal izateko.

EUSKARA

> Ondarroa UEMAn sartuko da apirilean

Ondarroako Udala udalerri euskaldunen mankomunitatean sartuko da berriro ere. Lehenengo bider 2000. urtean sartu zen Ondarroa UEMAn, eta 2006an Espainiako Epaitegi gorenaren aginduz kanporatua izan zen, beste hainbat herrirekin batera, UEMAren estatutuak ez legezkoak zirela argudiatuta. Horrek UEMAren estatutuen aldaketa eragin zuen, udalari berriro mankomunitatera sartzea posible eginez, nahiz eta azken urteetan ez den berriro sartzeko erabakirik hartu. Orain Ondarroa UEMAko kide izatera pasatuko da berrio, apirilaren 26an egingo den osoko bilkuraren bidez eta Kafe Antzokian egingo den ekitaldi baten bitartez. Izan bedi betirako!

HIRIGINTZA

> Anexoan aparkalekua atondu da, behin behinean

Udalak aparkatzeko lekua ipini du Zaldupeko Anexoan, behin behinean. Bertan, kotxe normalentzako eta auto-karabanentzako lekua laga da. Karabanak, ostera, ezingo dira laga bertan. Futbolean jokatzeko hondarrezko zelaia be laga da.

> Astilleruko aparkalekuan, 7 plaza gehiago

Astilleruko aparkalekuko espazioa hobeto aprobetxatu zitekeela iritzita, trasteak gordetzeko erabiltzen zituen eremu batzuk lekuz aldatu ditu udalak. Horrela, zazpi plaza gehiago geratuko dira erabilgarri aparkatzeko. Plaza hauek Astilleruko aparkalekuaren itxaron zerrendan izena emanda duten herritarren esku lagako dira ahalik eta arinen, indarrean diren baldintzen arabera.

KIROLA

> Lehenengo kirol buletina, sarean

Udaleko Kirol Batzordeko kideek lehenengo kirol buletina kaleratu dute, eta sarean zintzilik be ipini dute. Bertan, herrian dauden taldeen berri ematen da. Batzordekideen asmoa herrian dauden jarduera desberdinak ezagutaraztea da, jendea kirola egin eta ikustera animatzeko. Nahi duenak udalaren web guneko kirol batzordearen atalean dauka ikusgai, eta baita kiroldegian edota ikastetxeetan. **Www.ondarroa.eu** webgune berean, baina aparteko leiho baten, Ondarroako Kirol Agendaren berri ere izan dezakezu.

INGURUMENA

> Udalean birziklatu egingo da hemendik aurrera

Ingurumen Batzordearen ekimenez, hemendik aurrera udaleko bulegoetan papera eta plastikoak banatuta jasoko dira. Horretarako, kuboak ipini dira pisu bakoitzean. Asmoa zamarrak banatzeko orduan erakunde publikoak eredu izatea da, horrela herritarrak ere birziklatzera animatzeko.

> Erradiografiak anbulatorioan eman behar dira, oso kutsagarriak direlako

Ospitaleetan egindako erradiografiak ez dira bota behar zamarretara, oso kutsakorrak dira eta. Anbulatorioan entregatu behar dira, birziklatzeko. Bestetik, udalak duela urte asko herritarren artean jaso zituen eta gordeta eduki dituen ehunka erradiografia eman dizkio osasun etxeari, birziklatu ditzan.

KULTURA

> Erdi Aroko jaia antolatzeko batzarrak, martxan

Aurten Erdi Aroko jaia antolatzea erabaki du Kultur Batzordeak. Jai hori aurrera ateratzeko batzarrak martxan daude jada. Parte hartu nahi duenak kultur batzordera jo behar du, edota helbide honetara idatzi: **komunikazioa@ondarroakoudala.net**

ANIZTASUNA

>>> Herriko denden laguntzarekin, 4.000 kilotik gora janari Sahararako

Aniztasun Batzordeak eta Sahela elkarteak, Txirrimorraskiren laguntzarekin, Sahararen aldeko elkartasun astea antolatu zuten urtarrilean, herri okupatu horren aldeko mezua zabaldu eta errefuxiatuentzako jatekoa batzeko. 7 egunetan, hitzaldiak eta dokumentalak eman ziren herriko leku ezberdinetan. Horretaz gain, 4.000 kilotik gora jateko batu zen, herriko denden laguntzarekin. Astea amaitzeko, urtarrilaren 28an Porrotx eta Marikalanbre etorri ziren *Eman Lata* egunera (alboko argazkian). Herriko umeek, ondo pasatzeaz gain, euren elkartasuna adierazi zieten Saharako umeei.

BATZORDEAK

KIROL BATZORDEA **Kirol Gala >>>** Ondarroako Udaleko Kirol Batzordeak 2011ko kirol sariak banatu zituen, gala baten bitartez. Sarituak hauek izan ziren: 2011 urteko kirolari emakumezkoa, Nagore Osoro arraunlaria. Urteko kirolari gizonezkoa, Orkatz Beitia atleta. Urteko kirol taldea, arraun taldeko seniorrak. Eta urteko aipamen berezia Elena Fernandez igerilaria. Sari ematea herriko futbolari ezagunen eskutik izan zen, eta publikoaren artean herriko kirolari asko batu ziren.

Batzordeen neguko lana, irudietan

INGURUMEN BATZORDEA **Zuhaitz Astea >>>** Udaleko Ingurumen Batzordeak zuhaitz astea antolatu zuen martxoan. Herriko hiru ikastetxeekin batera eta Eguzki talde ekologistak lagunduta zuhaitzak landatu eta txori habiak ipini zituzten Artan. Horretaz gain, kostaldeko basogintzaren inguruko hitzaldia ere antolatu zuen. Bertan, Nahia Gartzia herriko biologoak egungo basogintza ereduak lurrak agortzea eta monolaborantza bultzatzen duela, eta bestelako aukerak eskaini zituen: bertoko arbolak ereitea eta basoa ustiatzeko modu berriak bultzatzea, adibidez, biomasa eskuratzea edota arbolak modu selektiboagoan ebakitzea.

BERDINTASUN KONTSEILUA **Martxoaren 8a eta Ondarroako Emakumeek lagatako aztarnak >>>** Martxoak 8a emakumeen nazioarteko eguna dela eta, Berdintasun kontseiluak egitarau zabala antolatu zuen. Aurten, emakumeek herrian lagatako aztarnak aztertu zituzten. Horretarako, herriko aztarna horiei buruzko 3 ikerketa liburu argitaratu eta euren autoreekin mahai-ingurua ospatu zuten Kofradia Zaharrean. Egun berean, aztarna horiek bisitatu zituzten, ibilaldi batean. Ez hori bakarrik, Aniztasun batzordearekin elkarlanean, hango eta hemengo emakumeen topaketak ospatu ziren. Martxoaren 8an, ostera, manifestazio moreak kaleak hartu zituen, Andrabanda feministarekin batera.

EUSKARA BATZORDEA **Badaukagu logotipoa! >>>** Euskara Batzordeak logotipoa edukiko du hemendik aurrera. Lehiaketa bidez aukeratu da irudia, eta parte hartzea oso arrakastatsua izan da, 26 pertsona aurkeztu dira eta. Gehienak ondarrutarrak izan badira ere, Bilbo, Aramaio eta beste herri batzuetatik be jaso dira proposamenak. Denen artetik Xabat Agirre ondarrutarraren lana atera da garaile. Alboko argazkian egilea bera ziboteko logotipoagaz.

EKITALDIEN ARGAZKI GEHIAGO IKUSTEKO, sartu **www.ondarroa.eu**-n batzordeen atalean!

AGENDA

APIRILA

- Apirilaren 17tik ekainaren 12ra, martitzen eta eguenetan, 19:30etik 21:30era **ARGAZKI ERREPORTAJEEN IKASTAROA,** Josu Trueba irakaslearekin. Egur tailan oinarrizkoak diren ezagutza eta teknikak landuko dira. Izena emateko deitu 94 683 36 69ra.

- Apirilaren 17tik ekainaren 28ra, martitzen eta eguenetan 17:30etik 19:00etara **EGUR TAILA IKASTAROA,** Zuriñe Gredilla irakaslearekin. Egur tailan oinarrizkoak diren ezagutza eta teknikak landuko dira. Izena emateko deitu: 94 683 36 69.

- Apirilaren 18an, eguaztena, 19:00etan **HITZALDIA** Kofradia Zaharrean: *"PAROT DOTRINAGAZ BUELTAKA"* Kandido Zubikarai eta Iñake Goñirekin (preso ohia eta senidea).

- Apirilaren 21etik aurrera, zapatuetan 10:00etatik 12:00etara Txomin Agirre udal liburutegian, ***"IRAKURLEEN TXOKOA"*** literaturazaleentzat: literatura irakurraldiak eta hizketaldiak izango dira idazle batekin. Apirilaren 21ean eta maiatzaren 12an Arrate Egaña idazlea izango da gonbidatua. Eta, aurrerantzean Julen Gabiriak hartuko dio lekukoa Egañari.

- Apirilaren 25ean, eguaztena, 19:00etan **HITZALDIA** Kofradia Zaharrean: *"PAROT DOTRINAGAZ BUELTAKA"* Jaiki Hadi mediku elkartearekin.

- Apirilak 27, barikua, 18:30ean Udaletxeko Pleno Aretoan **KONTSUMO TALDEAREN SORRERA, eta batzarra baserritarrekin.** Taldearen zergatia, funtzionamendua, helburuak eta nondik-norakoak zehaztuko da.

- Apirilaren 27 eta 28an, Berdintasun Kontseiluak antolatutako **JARDUNALDIAK: EMAKUMEEN TOPALEKUA**, BERDINTASUNAREN ALDEKO BORROKARAKO TRESNA. Jardunaldi hauekin parte hartze prozesu bat zabaldu nahi du batzordeak, emakumeen topalekuari buruz gogoeta egiteko. Bertan, esperientziak elkartrukatuko dira eta ekintza kolektiboa sustatuko da. Animatu eta parte hartu!

- Apirilak 27, barikua, 17:30etik 20:00etara **HITZALDI BI** Kofradia Zaharrean: *"UN ESPACIO PROPIO PARA LAS MUJERES"* Isabela Velazquezekin (Madrilgo «Mujeres Urbanitas» taldekoa) eta *"ZERTARAKO EMAKUMEENTZAKO TOPALEKUA?"* Maite Barreñarekin (Arrasateko Udal Berdintasun teknikaria).

- Apirilak 28, zapatua, Kofradia Zaharrean: 10:30ean , ESPERIENTZIA EZBERDINAK EZAGUTZEKO **MAHAI-INGURUA**: Ermuko Emakumeen Topalekua, Azpeitiko Emakumeen Txokoa eta Donostiako Emakumeen Etxea. 12:00etatik 13:30era, **EZTABAIDA TALDEAK ETA ONDORIOAK.**

MAIATZA

- Maiatzaren 2an, eguaztena, 19:00etan **HITZALDIA** Kofradia Zaharrean: *"PAROT DOTRINAGAZ BUELTAKA"* Kepa Manzisidor abokatuarekin.

- Maiatzaren 19an Kafe Antzokian, **LEAARTIBAIKO BERTSO TXAPELKETAKO FINALA.** Era berean, final hau Bizkaiko Txapelketarako kanporaketa izango da.

- Maiatzaren 25, 26 eta 27an, **ANTZERKI TOPAKETAK.** Topaketek bi ekimen nagusi izango dituzte: Bata, **hiru eguneko antzerki ikastaroa** antzerkizaleentzat, irakasle adituekin. Izen ematea 94 683 36 69an. Bestea, **antzerki emanaldiek**in gozatzeko aukera hiru egunetan.

- Maiatzaren 26an, Kafe Antzokian 21:00etan, **ANTZERKIA:** ***"Gure bide galduak"***, Dejabu taldearen eskutik.

ALDEAK BERBETAN

UDALBARRIAK ZABALIK DAGO TALDEEN IRITZIAK JASOTZEKO.
Bidali zeure taldearen idatzia helbide honetara: **komunikazioa@ondarroakoudala.net**

TXOMIN AGIRRE IKASTOLAko *IPARRA GURASO ELKARTEAREN ERANTZUNA*

Abenduko "Udal Barriak"-en atal honetan bertan, Bilduk, Txomin Agirre ikastolako jolastokiko lurzoruari buruzko informazioa eman zuen. Herritar gehienek egiatzat hartuko zituzten han agertzen zirenak, baina jolastoki horren eragozpenak jasaten dituzten umeen gurasoak, eta batez ere Guraso Elkarteko kideok, istorioaren bertsio faltsu hori irakurrita, erantzun bat eman beharrean geunden, eta Bilduren afirmazio subjektibo bakoitzaren aurrean, ondo dokumentatutako egiaz bete genuen herri guztiko buzoietara bota genuen testua.

Jolastokiarekin gertatzen ari denaren laburpena hau da:

- 2007. urtean Ondarroako Udala Txomin Agirre ikastolara zuzendu zen eskaera bat egiteko, hau da, gure jolastokiko lurzoruaren azpian aparkaleku batzuk eraiki nahi zituen. Horren truke udalak eman beharrekoak hauek ziran: lurzoruaren gainazalaren jabetza bueltatu (izan ere, lurzorua Udalaren izenean ipini behar izan zen obrak egiteko), bost aparkaleku plaza eta patioaren estalkia (alboetan irekia, eskola publikoan dagoen bezalakoa). Alde biak ados eta pozik, hitzarmen bat sinatu zuten.

- Udaletxeak eta Ikastolaren jabetzak sinatu zuten hitzarmenean argi geratzen zen gure umeak **bi ikasturte** jolastokirik gabe geratuko zirela, baina dena bukatzean, jolastoki estalia izango zutela. Gaur egunean, **hirugarren ikasturtea aurrera doa** eta oraindik ez euritan (itzelezko putzuak daudelako) ez eguzkitan (buruko minak eta erretinak erretzeko beldurrez) gure umeak ezin dira kanpora atera jolastokia egiterakoan erabilitako material kaltegarrien erruz. Izan ere, Udalak ez du bete honi buruz idatziz onartu zuena. Gainera, txirrista, zuhaitzak, jarrilekuak, zakarontziak, dutxa eta jantzi lekuak eta abar lanen hasieran eskabadorak eraman zituen eta berriak non ote daude?

- Hitzarmenean argi agertzen da baita ere lurraren jabea hitzarmena sinatu zen egunean Ikastola zela, eta azaldu dugun bezala, "permuta" baten arabera jarritako kondizioen artean lanak bukatu bezain pronto lurrazalaren jabetza bueltan emango ziola Udalak Ikastolari. Udalak hau ez du bete nahi.

- Ikastola eraiki zenean, derrigorrez eman behar zitzaizkion Udalari lur zati batzuk. Legeak %10 ematera derrigortzen zuen arren, Ikastolak %30 eman zion, eta orain gainera azpijoko honen bidez jolastokia lapurtu digute. Permuta betetzeko asmorik ez daukate, eta jabetza bueltan ez dutela emango diote Udaletik.

Konturatzen al zarete, "etxeko lanak" egin dituzten bakarrak umeak direla? Ikasturte 2 baino gehiago gela barruan goizetik arratsaldera, "zigortuta", zaratak jasaten, hautsa arnasten, eguzkiak erreten…. **Herriko umeen osasuna jokoan dago**. Ez al dute merezi hitz emandakoa? Zer dela eta diote orain lur azpian dagoen guztia ondo egina dagoela eta lur gaineko guztia ezin dela egin? Legeak ez omen dute uzten, zein lege? Beste eskoletako jolastokiak estaltzen uzten duen lege hori? Legeak ez al dira berdinak ume guztientzat?

BILDU
Txomin Agirre ikastolako patioaren lurzoruaren erabilerak

Udalak idatzi honen bidez, Txomin Agirre eskolak udal aparkaleku publikoaren gaineko espazioa jolastoki erabilerataraco duen beharrak eragin duen gatazka/tirabira bideratu eta gaizki ulertuak edo nahasteak argitzea du asmoa.

Udal arduradunak, gardentasun eta zuzentasunezko kudeaketa publikoa eginez, azaroan bai guraso elkarteko eta baita eskolaren jabea den Parrokiaren ordezkariekin bildu ziren, egoera zein zen azaldu eta udalak eskuartean zuen informazio guztia beraien esku jartzeko.

Gauzak horrela, Parrokiaren ordezkariek Udala zuzen dabilela aitortu dute, hau da, hirigintzako arauen arabera urte luzez patioa izan den lurzoruaren jabegoa domeinu eta erabilera publikoetarako lagapen lursaila dela eta ondorioz derrigorrez herriari debalde eman beharrekoa. Udala arauek agintzen dutena betetzera mugatu da, derrigorrezkoa eta hala izan behar duelako kudeaketa publikoak.

Beraz, jabegoaren kontua argituta, espazio publikoaren erabileraren kudeaketa da bideratu behar dena orain eta Udal ordezkariek/arduradunek modu arduratsuan egitea dute asmo.

Gai honetan, Eskolako umeentzako patioaren beharra errealitate bat da eta Udalak ez du ezikusiarena/itsuarena egiten ezta ere alperrikako arduradun edo arduragabeen bidezidorretik jotzen. Baina ez dio auzorako aspaldi izan behar zuen espazio libre publikoari uko egingo, bai orduan eta baita gaur egun ere, lurzorua Ondarroan urria eta premiazkoa delako.

Puntu honetan, alde batetik auzo eta herri interesak eta bestetik eskola zerbitzua eman eta jasotzen dutenenak uztartu behar dira, esklusibitaterik inork izango ez duela garbi utzita. Hau bideratzeko auzo batzarrean irtenbidea proposatu eta adosteko lan egingo da bai auzokoekin eta baita Iparra Guraso Elkarteko eta Parrokiaren ordezkariekin, gardena eta bidezkoa izan behar duen konponbidea lortzeko. Bere garaian ere Parrokiari proposatu zitzaion bezala, eskola jarduerak diharduen bitartean eskola ordutegia errespetatzea eta ordutegiz kanpoko gainontzeko denbora auzoko eta herritar guztientzako zabalik erabiltzeko eskura izateko modua bilatzea helburu izango duen proposamena egingo du Udalak.

Gaur egun, udal aparkaleku publikoaren gaineko espazioaren erabiltzaileak Txomin Agirre Eskolako umeak dira, nahiz eta Udalak aitortua duen ez direla baldintzarik egokienak edo denok nahiko genituzkeen modukoak ematen. Udala egoera hobetzeko konponbideak bilatzen dabil eta bien bitartean, behin behineko soluzioak ere adosteko prest da gurasoen ordezkariekin zein auzokideekin eskolako patioan eraikinaren kontra estalki arin eta desmuntagarri bat jartzeko.

Udalak borondate garbia eta konpromezu zintzoa du erabilera, ordutegi eta garbiketa eta beste hainbat konturen inguruko eztabaida zabal eta gardena egiteko bai auzokoekin eta baita Eskolako arduradun eta gurasoekin. Auzo batzarrean, bertatik, egoerari erarik zuzenenean erantzungo dion irtenbidea landu eta adostutako denontzako onurazkoa izango den erabakia hartzeko modurik egokiena dela konbentzitua da Udala. Emaitza hitzarmen adostu eta publiko batean jasoko litzateke.

http://bildu.info/ondarroa

EAJ
«Ondarroako 2012ko aurrekontuak epaitegian inpugnatu ditugu , ondarrutarren interesak defendatzeko»

Ondarroako EAJ-PNVk administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu du Euskal Herriko Epaitegi Gorenaren aurrean, 2012 urterako aurrekontuak behin betiko onartu zituen Ondarroako Udal Osoko Bilkuraren kontra. Gure ustetan, aurrekontu hauek ondarrutarren interesak urratzen dituzte eta baliogabeak dira berez, aurrekontuen gaineko legeria ez ezik, lurzoruaren gaineko eta hirigintza legeria urratzen dituztelako. EAJ-PNVk azpimarratu nahi du beren ordezkariek ilegaltasun honen berri eman zutela bi Osoko Bilkuretan eta horren ondoren alegazioa ere aurkeztu zuten, baina BILDUK ez zien eskariei jaramonik egin. "Ez zaigu epaitegietara joatea baino beste erremediorik geratu. Udal gobernua tematuta dago, iragarpenei ez die kasurik egin eta aurrekontuak onartu ditu, udal teknikariek idatziz beren kontrako irizpidea adierazi duten arren".

Gakoa da aurreko udal korporazioak Ibaiondo kale azpian egin zuen aparkalekuen emakidatik aurreikusten diren diru sarrerei eman nahi zaien erabilera (1.680.000 €). Toki hau udal lurzorua da hirigintza planeamenduaren ondorioz lortutakoa, eta beraz Udal Lurzoru Ondarea izenarekin ezagutzen da.

Legez, ondare hau administratzetik eratortzen diren diru sarrerak ondare hori handitzeko eta zaintzeko erabili behar dira. Hau da, aurrekontuko sarreretatik aparteko poltsa batean daude. Diru sarrera horiek, legez, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko, lurzorua erosteko, bizitokiak urbanizatzeko edo udal ekipamenduak eraikitzeko edo hobetzeko erabili behar dira, eta hau ez da aurkeztu diren aurrekontuetan betetzen, diru sarrera hauek baimendu gabeko xedeetarako jartzen direlako, besteak beste ohiko eragiketetarako, pertsonal gastuetarako, funtzionamendu gastuetarako, finantza gastuetarako eta ohiko gastuak ordaintzeko diru laguntasunak emateko.

Arestian aipatutako horren ondorioz, Ondarroako Udalak 2012 urterako onartu dituen Aurrekontuek 605.715 €ko aurrezpen negatiboa (defizita) suposatzen dute.

EAJ-PNVk ondorengoa aditzera ematen du: "diru sarrerak zuzen kudeatu behar dira eta udalak esan behar du zenbat gastatzen den eta zein kontzeptutan, baina ezin dugu ez daukaguna gastatu. Ondarrutarren interesak eta etorkizunak serioski kaltetuak izango dira". Gure udal ordezkariek iragarri dutenez "ohiko gastuak ohiko diru sarrerekin ordaindu behar dira; eta ez da legezkoa ezta zilegia ere, Udal Lurzoru Ondarearen emakidatik eskuratutako diru sarrerak, ohiko gastuak ordaintzeko erabiltzea. "Oporretan joateko, etxea salduko bagenu bezala".

Zera azpimarratu nahi dugu: "Kontu publikoak era egokian erabili behar dira". Azken bi legealdietan egin dugun lanaren ondorioz, Ondarroako Udalak 2011an aurrekontu orekatua zuen. EAJ-PNVren lan eta kudeaketari esker, Udal Lurzoru Ondarea handitu zen. Eta, urte bete eskasean Bilduk aurrekontuak desorekatu ditu, Udal Lurzoru Ondarea hipotekatu du eta 605.715 euroko defizita eragingo du. Ezin dugu gestio oker honekin jarraitu. Ondarroako etorkizun ekonomikoa kolokan dago". Gai honen inguruko informazio zabalagoa, Ondarroako EAJ-PNVren web gunea kontsultatu: **http://ondarroa.eaj-pnv.eu**

900 314 053 TFNOA. + ALAMEDAKO BUZOIA

2011ko abendutik 2012ko martxora bitarteko mezuak

2011/12/19
1. *Iperkaleko emakume bat naz. Aszentzoreko parin adokinak erdi solte daz eta gustako lestake baten bat pasati ikustea.*
Txomin Agirre kalean egindako etxebizitza batetarako argia pasatzeko obrak eragin zuen kalte hori. Obra egin zuen promotorearena behar zuen erantzukizun hori. Orain behin eta berriz Udalak bere gain hartzen du. Egingo da.

2011/12/21
2. *Zisne baltza agertu da Ondarrun eta gasoilez beteta euan. Esaten dabe gatxe dala jakitxi gasoille zeñek botaten daben, bañe sasoi de zeoze etxeko. Zelako kalti errixuko bizitziai, osasunai. Errixu ez da kloaki, zaindu ein bir dou!*
Ados.

3. *Alfan da arbola zahar handi bat gero eta okerraua dune. On dala urte batzuk egun haixetzu baten, adar lodi bat jausi zan bidea eta moztu ein bir ixan ben. Ordundik deskonpensata dalako gerua ta okerraua da.*

4. *Ondo da esati txakurran kakak jasoten ez dabenai multi ipinikoakola. Bañe paetetan jarten dozuen propagandik herrixe ez dabela zikintzen pentsatezue? Paet guztik propagandaz beteta daz eta horrek multaik ez dau merezi? Lehen debekatute euan, kartelak ipintxen banak kendu ein bir ixate ban, lehengoa buelta ein bir dou edo propagandi ipintxeko leku berezi batzuk eongo diz. Hoixe jakin nahi neuke.*
Talde bakoitza jartzen dituen kartelen jabe egin behar da eta denbora bat egondakoan kendu. Leku bereziak badaude kartelak jarri ahal izateko. Udalak bere aldetik herriko pareten garbiketa hilero egiten du.
5. *Antiuko bidi kakaz beteta da, hango terrenutako txakurran jauik jabetu ein bir diz.*
Udal ordenantzen arabera 300euroko multa jaso dezake txakur kakak jasotzen ez dituen jabeak. Udalak ordenantza horren aplikazioa beteko du, norbait harrapatuz gero. Hala ere, jabeen kontzentziazioa da arazoari irtenbidea emateko bide bakarra.

2011/12/27
6. *Gaur goxin eon da Liburutegixe beteta, ikaslik urtarrilin eta otsailin dakarre azterketak eta gabonetako oporretan gustako lestake Udal Liburutegixe arratsaldetik be iratxe eoti. Bestalde, wi-fi premiñazku ixatea alla da Liburutegixan.*
Udal Liburutegiaren ordutegia sakon aztertzen dabil Udala. Aurtengo egutegia egiterako pertsonal arrazoiengatik ezin izan dugu ordutegia aldatu. Ahaleginak egingo dira Liburutegiko ordutegia dauden eskariei egokitzeko. Kable bidezko 25 Interneterako konexio aurten jarriko dira erabilgarri barruko aretoan.

2011/12/28
7. *San Juan Txurruko eskilarak garbitzen dabenin orri guztik geatzen diz Madalenan eta horrek horrixak egunetan ibiltxen diz kale guztin zabaldute. Zein etorri bir dau orrixak batzea? San Juan Txurrukuk garbitxu badabe eskilari, honek orrixak eurak amatxu bileukie.*
San Juan Txurru eta Madalena garbitzen duen garbitzailearekin hitz eginda dago.

2012/01/05
8. *Ibaiondotik. Operata naz eta kamillan be ibiltxen naz. Azera altzateko altura handixe da eta miñakin ezin altzata ibiltxen naz. Hoixe beatzi nahi dot ia zeoze ein leiken.*
Aztertuko da.

9. *Artabidetik. Gaur reziklateko bidoi guztik Batzokiko edifizixo bixan artin ipini zuez. Hor paso bat da garajine eta hori zarratu ezkio zelan ibilli bir diz horrek kotxiok? Ordun gauziai buelti emon eta pentsa ze bentaja eta ze inkonbeniente dakarren.*
Konponduta. Aldaketa hori 4-5 aparkaleku plaza irabazteko egin zen. Orain gelditu den bezala 2-3 plaza irabazi dira.

2012/01/10
10. *Artabide 38 eta 40 artin kontenedorak lagazuez pasun erdixan, kotxik gorutz de berutz eta garajeko sarreri zarratute. Ze sentido dakarre horrek kontenedorok hor erdixan? Mesedez ipini gauzak euazen modun ondo euazen da.*
Aurreko puntuko kexa berbera. Konponduta.

2012/01/12
11. *Artabiden Batzoki aurrin 36 eta 42 bitxarteko zonan, Kamiñazpin ein dozuen latxeik, ia marka leikezen kotxin aparkalekutako tokixak. Marka baik asko galtzen diz eta jentik aparkateko formi eta modu ikusteko.*
Aztertuko da.

2012/01/23
12. *Zan esateko Plaiko Morruko argixak nahi beste egunin dazela biztute, gabin ondo da bañe egunez?*
Argi horien ardura ez da Udalarena, argi horiek Portu Zuzendaritzarenak dira.

2012/01/25
13. *Ondarruko ama bat na umi minusbalido dakatena eta eskatzetzut Leokadiko hortxe holako bajadatxu bat engo bazendukie.*
Eginda.

2012/01/26
14. *Plaza Berduran egunero baloin eta porru erreten eta kriston eskandalu. Gogoik be eztau emoten sartzeko. Eta gabetan botelloik eta beste gauza asko. Mesedez, ia hori zelan bideratu zeinkien.*
Aztertuko da.

15. *Zan esateko etxebizitza sozialan zozketi Udalak ein baban, on lagun batek beste batei naitzala saldu, kosta gakon baño karuaua. Hori etxioi zozketa jun bizan bestin modun. Ondiokan ahalgo da zeozer ein legi beteteko.*
Esku aldatze bi egon dira, Babes Ofizialeko etxebizitza batena eta bestea tasatuarena eta Udalak baieztatu dezake biek erabili dituzten prozedurak legezkoak direla. Babes ofizialeko etxebizitza baten eskualdatzea gauzatzeko Udalak ez du eskumenik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebiderena da eskumena. Babes ofizialeko etxebizitzaren eskualdatzeak Etxebideren onarpena izan du. Etxebizitza tasatuan Udalak eskumena du eta Udaleko itxaron zerrendan zegoen hurrengoari egokitu zaio, legeak araututako baldintzetan.

16. *Erretegiko kali mesedez garbitxu. Urtik daruz garbitxu baik, gabonetako serpentinak eurixak kendutxuz.*
Garbitzen da.

17. *Artan bixi na eta egunero egunero depuradori ein danetik itsosu bitsez beteta egoten da, tingloi atzetik Lekatxorutz. Normala da? Depuradorik ondo etxen dau beran biharra? Ala ure kontaminata botaten dau? Depuradori ein baino lehen itsosoko ure garbixe egoten zan. Normala da bitz hori?*
Depuradorak funtzionamendu egokia edukitzen du normalean. Hala ere, batzutan ur gazia sartzen da hodietara, eta orduan urari ezin izaten diote egin garbiketa organikorik (ur gaziak ura garbitzen duten bakteriak hiltzen ditu eta). Herriko saneamendu sistema hobetu ahala, arazo hori desagertzen joango da.

2012/01/31
18. *Gauza bat nahi dot argitxu, Markiñan emon dabe permisu lokalak etxebizitza jarteko eta hamen Ondarrun alde zaharrin beti bixi ixan gaz behiko lokaletan. Eta on ia zeatxik ez dan permisoik lokalak etxebizitza formateko. Eta ahal bada ia zer ein bir dan, ze zahar asko gaz ezin ibillitxe gazenak.*
Ondarroako Udalean indarrean dauden araubideek ez dute baimentzen lokalak edota etxabeak etxebizitza bihurtzerik. Soilik ezindu fisiko maila zehatz batetik gorako pertsonentzako egokitu daitezke.

2012/02/12
19. *Iturribarritik Kamiñaldera azera guzti txakurran kakaz beteta dago. Egunero txakurrak solte dabiz, jauik kilometro batea eta edozer etxen dabe. Ondarru guzti da kakaz beteta. Txakur peligrosuk solte dabiz bozalik baik. Durangon 8.000euroko multi ipintxen dabe txakur peligrosu bozalik baik badu.*
Udal ordenantzen arabera 300 euroko multa jaso dezake txakur kakak jasotzen ez dituen jabeak. Udalak ordenantza horren aplikazioa beteko du, norbait harrapatuz gero. Hala ere, jabeen kontzentziazioa da arazoari irtenbidea emateko bide bakarra.

2012/02/14
20. *Iparragirre kalean gasa eta fibra optikoa noiz ipintzeko asmoa duzuen jakin nahiko nuke. Herri erdian bizi gara eta ez dut ulertzen nola oraindik ez dugun gasik ezta fibra optikorik ere. Iparragirreko hainbat eraikinek gasa 5 metrotara dute, baina ez dute Udaleko baimenik gasa bertararte eramatako.*
Aurtengo aurrekontuetan ez da posible izan gas barik dauden eremuetara gasa bideratzeko obrak jasotzea. Udala obra horiek egiteko aurre proiektuak lantzen dabil.

21. *Nahi dot jakin ia badan asmoik Iperkaletik Pixapea dun asentzoran hizkuntzi euskera hutsin lagateko. Gaur egunin euskeraz eta erderaz da eta esaten dabenatxik euskera hutsin nahiku dela usten dot, ze ulertzen da.*
Igogailu guztiek euskara hutsez funtzionatzea da Udalaren irizpidea. Inoiz aberia bat egon ostean mantenimenduko enpresakoek euskera hutsez ez den beste modu batera ere jartzen dute eta Udalaren zeregina da enpresa, horren jakitun jartzea.

22. *Kritika bat nahi dot ein Udalai esaten, jentik esan daben modun, Kamiñalde Iturribarrin lelengoko promoziñoiko etxebizitza bat eskutik eskure saldu ei de. Ordun nahi dot Udalak edo arduradun batek erantzun bat emoti horrei, zelanik dan azaltzen. Ze hor listau bat da notaxun aurrin zorteataku. Ordun ia horrek ze balidez dauken.*
15. puntuko kexa berbera da.
15. puntuan du erantzuna.

2012/03/07
23. *Herri barruko urbanu pentsaten dot ez dala iñondik iñoa egokixe gure lakoxe jentintzat. Ezin sartute ibiltxen gaz Kamiñazpin. Umik daukenak be nekez ikustetxuaz. Lehen euana edo holakoxe beste autobus bat zeatxik ez da ipintxen?*
Aurreko legealdian gaur eguneko enpresari 2019ra arteko kontratua egin zitzaion eta martxan dagoen ibilgailua egungo Udalarentzat ere ez da batere egokia. Horregatik, Udala enpresarekin hartu emonetan dabil iazko urritik ibilgailu aldaketa gauzatu asmoz. Udalaren nahia ahalik arinen egitea da.

2012/03/09
24. *Proposamen bat. Ikusitxe herrixan zelako arazuk dakauzen aparkateko, ikusi dot Arraun Elkarteko goiko rotondan dan desmonti ein zana etxik etxeko parata dala. Ikusi dot kartel bat solar hori saldu etxen dala esaten dabena. Proposatzen dot Udalak solar hori erosi eta parking bat sortzi, bertan etorkizunin etxik edo ein bir badiz estrukturi bota bir ez ixati kontutan eukitxe.*
Udalaren nahia ere orube hori momentuz behin behineko aparkaleku modura erabiltzea da eta horretarako gestioak egiten dabil. Momentu honetan orubea La Caixarena da eta Udalak proposamen bi egin dizkio: Orubea erostea edo erosi ezin bada geldirik dagoen bitartean erabilgarri izatea. La Caixak jarritako salmenta prezioa 5,5 milioi eurotakoa da, Udalari ezinezkoa zaiona kopuru hori ordaintzea (2012ko aurrekontu osoa 10 milioitakoa da). Obrarik egiteko asmorik ez duten bitartean orubea herriarentzat erabilgarri izateko eskakizunari La Caixak ez dio oraindik erantzun. Udalarentzat lehentasunezkoa da Antzosoloko orube hori eta gestioetan jarraituko du.

DOHAINIK!

TELEFONO BEREZIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak, proposamenak... DEITU!

900 314 053

24 ordutan martxan zure mezua lagateko!

ALAMEDAKO BUZOIA

Zuen kritikak, kexak, ideiak... zabalagoan kontatu nahi badiguzue, IDATZI GUTUNA eta bota BUZOI URDINEAN!

ZAINDU HERRIA!

Txakurren jabeei oharrak

> Txakurrak **lotuta** eta arraza arriskutsukoak **bozalarekin** ibili behar dira.
>> Txakur **kakak batzea jabeen erantzukizuna** da.
>>> Kakak **jasotzen ez dituenak 300 euroko multa**k jaso ditzake.

Kalera atera eta txakur batek egindako kaka zapaltzea ez da oso gauza atsegina. Baina errua ez da izaten kaka egin duen txakurrarena, jaso ez duen jabearena baino.

Jaberik gehienek euren txakurren kakak jasotzen badituzte be, beste batzuek ez dute halakorik egiten. Ondorioz, herriko kale askotan topatu daitezke txakur gorotzak.

Txakur batek egindako kaka jasotzea bere jabearen ardura eta betebeharra da. Udaleko animalien ordenantza argia da arlo honetan: "txakurren gorotzak ezin dira bertan behera utzi bide eta plaza publikoetan, umeen parkeetan, lorategietan eta, oro har, leku apaingarrietan edo jendea ibiltzen den lekuetan", eta hori egiten ez duenarentzat 300 euroko multak aurreikusten ditu ordenantzak.

Ahalegin apur batekin, arazo hau erraz konpondu daiteke. Ez da ezer kostatzen boltsikoan plastikozko boltsa bat eramatea eta txakurrak kaka egiterakoan berau jasotzea. Txakur jabe gehienek horrela egiten dute, inolako arazo barik.

Antiguako Ama Abesbatza. 2011ko gabonetan euren azken kontzertua eskaini zuten.

Agur eta eskerrik asko, Antiguako Ama Abesbatza; ongi etorri, antzerkizaleak!

2011ko gabonetan bere azken kontzertua eskaini zigun Antiguako Ama Abesbatzak. Agur horrekin, urteetako lan handiari amaiera eman zioten abesbatzako kideek. Makina bat ordu entseatzen, hamaika kontzertu han eta hemen, eta zenbat emozio urte hauetan guztietan! Orri honetatik gure eskerrik beroena eman nahi diegu bertan parte hartu dutenei, borondatez herritarroi eskaini dizkiguten momentu ederrengatik. Ea belaunaldi berriek zuen bidea jarraitzen duten! Eskerrik asko, bihotz-bihotzetik!

Batzuei agur esan behar, eta besteei ongi etorri. Izan ere, martxoan aurkeztu zuten Ondarroako Antzerkizaleak elkartea, herriko aktoreak eta talde eszenikoak batzen dituena. Euren helburua herrian antzerkizaletasuna zabaltzea eta indartzea da. Ondarroan antzerkirako dagoen afizio handia ikusita, seguru lanik ez zaiela faltako. Lehenengo hitzordua be ipini dute: maiatzeko antzerki topaketak. Animo ba, eta ekin lanari!

Martxoaren 25ean Ondarroako antzerkilari eta antzerkizaleek agerraldia egin zuten Kafe Antzokian.

KONTUAN HARTZEKO DATAK:

- **APIRILAren 26a,** Gernika bonbardatu zuteneko 75 urte
- **MAIATZAren 1a,** LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA
- **MAIATZAren 12a,** ANTXOA EGUNA
- **MAIATZAren 15a,** BASERRITARREN EGUNA

- **MAIATZAREN 19an,** «GOAZEN PLAZARA! PLAZAK BETE, KARTZELAK HUSTUTZEKO» mobilizazioak

SINADURA BILKETA, maiatzaren 6ra arte

Gogoratu!

Agenda: www.ondarroa.eu/eu-es/Gertakariak/

UDAL TELEFONOAK

www.ondarroa.eu

UDALETXEA
MUSIKA PLAZA z/g
1.pisuan:

Idazkaritza	94 6833674
Alkatetza	94 6833676
Bulego Teknikoa	94 6833677
Kultura eta Kirol Saila	94 6833669
Euskara Zerbitzua	94 6833668
Berdintasun Saila	94 6833670

PLAZA AZPIKO BULEGOAK

Erregistro orokorra	94 6833672
Udaltzaingoa	94 6833673
Gizarte Zerbitzuak	94 6833671
Kontuhartzailetza	94 6833666
Kontsumo Bulegoa	94 6830498
Bake Epaitegia	94 6833679

BESTE UDAL ZERBITZUAK

Kiroldegia	94 613 42 09
Artibai Egoitza	94 683 32 31
Musika Eskola	94 613 40 63
Liburutegia	94 683 33 43
Turismo Bulegoa	94 683 19 51
HHI - EPA	94 683 27 55

TELEFONO INTERESGARRIAK

Osasun Etxea	94 603 79 99
Gurutze Gorria	94 683 19 29
SOS Larrialdiak	112
Suhiltzaileak	94 616 89 92
Itsas Sanitatea	94 683 10 00
Alkoholiko Anonimoak Elkartea	94 683 20 86
Emakunde	945 13 26 13
Bizkaibusa	902 222 265
Euskotrena	902 543 210
PESA	902 101 210
Taxi-Geltokia	94 683 26 86
Kofradia	94 683 19 51
Txalupen sarrera	94 683 02 23
Enplegu Bulegoa	94 683 07 00
Butanoa	94 616 62 54
Iberdrola	94 415 14 11
Telefonika-Aberiak	1002
Ura- Partzuergoa	94 487 31 87
Postetxea	94 683 15 01
Parrokia	94 683 01 98
Notaritza	94 683 00 83
Arraun Egoitza	94 683 33 35
Zaldupe Zelaia	94 683 10 53
KZgunea	94 683 33 45
Lea-Artibai Amankomunazgoa	94 616 90 68